

BARAKALDOKO ORCONERA EREMUAREN BERRANTOLAKETA,
kultura eta historia industrialaren aztarnak herriari plazaratuz.

Gradu Amaierako Lana

Egilea: Naia Azkenaga Duran
Tutorea: Ezekiel Collantes Gabella

Nerbioi itsasadarren ezker aldean hutsik geratu diren eta iragan industrialak izan duten orubeak ugariak dira. Hauetako asko garai ekonomiko oparoan garatutako proiektuen barne badaudere, gaur egun ahaztuta dauden eremu bihurtu dira. Horrela ezker aldeko udalerrien artean huts hauek harresi bihurtzeaz gain, hauen egoera sozioekonomikoa agerian uzten dute.

“El posterior declive de la industria del hierro legó una pesada herencia de desempleo, ruinas industriales, suelos contaminados, escasez de viviendas y de zonas verdes y pérdida de población.”¹



TESTUINGURUA // 4

AURRE AZTERKETA // 6

*sarrera
Kontestu urbanoa
Kontestu soziala
Datu demografiko eta ekonomikoak
Ondorioak*

KOKAPENA // 17

*Kokapena
Orconera eremua historian zehar
Hirigintza arauak
Orconera Iron Ore eremuaren egoera
Puntu beltzak landutako eremuan
Aurrexistentzia fitxak*

PROIEKTUA // 27

Helburuak

ORCONERA EREMUAREN BERRANTOLAKETA


*Estrategiak
Ordenazio orokorraren azalpen eskemak
Eraispenak
Ordenazio orokorra
Ordenazio orokorra atmosferak
Ordenazioa burutzeko faseak*

BI AUZO BATERATZEA

Auzo lotura

AZTARNAK BERPIZTEA


*Esku hartze estrategia
Osasun zentroa
Zentro zibikoa
Kirol ekipamendua*



Azterketa gauzatu ondoren ezker aldean zehar bost eremu nabarmendu dira. Galindoko ibarra, Benediktako zona, Kadaguako ibarra, Lutxanako mea zamatoki zaharrak eta Zorrotzako Basea. Eremu hauek udalerrri eta auzo ezberdinen arteko lotura eteten dute. Gaur egun bertako aktibitate industrial desagertzeko bidean dagolarik jarraitasun falta handiak sortzen ditu.

Gaur egun eskualdeko hiri sarea erabat desorekatuak aurkitzen da. Bilbo Metropoliar zerbizua ematen dion espazioa (Superportu, Iparraldeko autopista korapiloak, trenbide sarea eta autonomi erkidego mailako beste zenbait ekipamenduak), trama urbanoa eta garai industrialaren herentzia diren gune ahaztu eta degradatuz betetako eremua bihurtu du ezker aldean.

Proiektu honetan Nerbioi itsasadarra eta Kadagua ibaiak bat egiten duten eremua sakonago aztertuko da.



Bilbo eta Barakaldoko hiriak bat egiten duten eremuan jarraitasun eta koherentzia falta ikusten da. Ereku hutsek katea Nerbioi itsasdarretik barnera sartzen da zenbait auzotan.

Zonalde honetan lehen aipaturiko elementuak bateratzen dira; besteak beste, eskualde eta estatu mailan zerbitzua ematen duen errepide sarea eta eremu hutsek bat egiten dute.

Gaur egun, begi bistaz, gunea antzina izan zenaren aztarna gutxi dauden arren, auzoetan barrena garai ezberdin hauen adierazleak diren eraikin, lerrokadura, begetazioa... aurki daitezke. Azterketa honetan Lutzana-Llano auzo bateratu moduan aurkezten den arren sorreratik banaturik egon diren nukleoak izan direla argi utzi nahi da. Bestetik, aipatu beharra dago hauek nukleo hiritar nahiko berriak direla.

Auzo mailan aurkitu edota hura egituratzen duten zerbitzu, ekipamendu edo azpiegituren egoerari dagokionez.

-Ekipamendu eskasak: Hiriko hirigintza plan orokorrak zonifikazioaren alde egiten du, auzo periferikoak ahaztuz.

-Etxebizitza tipologiak: Langile etxebizitza merkeak auzoen tramaren %75a osatzen dute, hauek kasu gehienetan behe solairuetan etxebizitzak dituzte eta ez dituzte aparkalekurik. Auzoko kaleetan, kotxeak komertzioen aurretik doaz.

-Azpiegitura falta: Auzo elkarteen egoera tamalgarria da bertan, auzo aurrera eramaten duten pertsona taldeek ez dituzte behar bezalako instalaziorik.





AUZOen MUGIKORTASUNA:

- Garraio bide sarea
- N-637
- N-634
- Santurtzi-Bilbo errepidea
- Auzo lotura nagusiak

- Garraio bide publikoa
- Trena
- Metroa
- Bus geltokiak
- Bus sarea





P.E.R.I. 06 Sefanito
 Egoera: Lehen fasea gauzatua
 Bigarren fasea partizipazio prozezuan

250/3.000 etxebizitza



P.E.R.I. 07 LUTXANA - LLANO
 Egoera: Bertan zeuden eraikinak eraitzi ostean ez da aurrera egin.
 Garatu gabeko proiektua.


4



P.E.R.I. 00 SERRALTA
 Egoera: 2005.ean plan berezia eratu zen.
 Gaur egun bertan zeuden eraikin historikoak bota eta bertan behera geratu da proiektua.

0/860 etxebizitza

5



P.E.R.I. 07 LUTXANA
 Ezkerraldeko parke teknologikoaren proiektua.
 Egoera: Ez dago daturik.



P.E.R.I. 02 BURTZEÑA - MUNOA
 Egoera: 2018.urtean partizipazio prozesua garatzen hasi da.

P.E.R.I. 03 BURTZEÑA
 Egoera: Bi fase garatu dira solik. Oraindik erdia baino gehiago berrikusi gabe dago 2011. urtetik.

350/? etxebizitza

ETORKIZUNA LUTXANA-LLANO:

- Zabalguneak
- Eraikin hutsak
- Teknologi parkea

e.2 ARTZAI ONA ELIZA

Jabari: pribatua
Erabilera: Eliza
Kanpo espazioa: Ez

Legend: Ez (No), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

ETXE SOZIALA

Jabari: publikoa
Erabilera: Auzoko taldea eta irratia xedeak.
Azalera: 75m²

Legend: Ez (No), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

e.1 BITURITXA

Jabari: publikoa
Erabilera: Lanbide heziketa eta modulo psikosoziala
Kanpo espazioa: Bai

Legend: Bai (Yes), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

e.4 UDAL LIBURUTEGIA

Jabari: publikoa
Erabilera: Liburutegia
Azalera: 110m²

Legend: Ez (No), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

e.5 AUZO ELKARTEEN ETXEA

Jabari: publikoa
Erabilera: Auzo etxea (auzo talde ezberdinen txokoa)
Azalera: 500m²

Legend: Bai (Yes), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

e.6 FUTBOL ZELAIA

Jabari: publikoa
Erabilera: Sportin FC, Paul-darrak eta Burtzeinako FC.

Legend: Bai (Yes), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

e.7 OSASUN ZENTROA

Jabari: publikoa
Erabilera: osasun zentroa
Azalera: 1.060m²

Legend: Ez (No), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

e.8 USOA LANTEGIA

Jabari: publikoa
Erabilera: Desgaitasuna duten pertsonetarako integrazio lantegia.

Legend: Ez (No), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

e.9 LLANOKO HAUR ESKOLA

Jabari: publikoa
Erabilera: Haur eskola eta ludoteka
Azalera: 1.500m²
Kanpo espazioa: Bai

Legend: Bai (Yes), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)

e.10 MUNOko ESKOLA

Jabari: publikoa
Erabilera: Lehen hezkuntza zentroa
Azalera: 1.500m²
Kanpo espazioa: Bai





Legend: Bai (Yes), Astelehena (Monday), Asteburutia (Tuesday)



AUZO BERDEGUNEEN KATALOGOA





0.1

Azalera: 33.653m²
 Malda: %13.2
 Jabaria: Pribatua
 Erabilera: Hutsa






0.2

Azalera: 19.066m²
 Malda: %18-6
 Jabaria: Publikoa
 Erabilera: Parkea





0.3

Azalera: 66.252m²
 Malda: %13
 Jabaria: Publikoa
 Erabilera: Parkea

0.4

Azalera: 97.289m²
 Malda: %8
 Jabaria: Publikoa
 Erabilera: Paseoa

AUZO ATMOSFERA

a.1



a.2



a.3



a.4



a.5



a.6



a.7



a.8



a.9



a.10




a.11



a.12



a.13



Auzo hauen sorrera eta handitzea garai industrialean eraikitako etxebizitza merkeen eskutik etorri zen. Barakaldo zein ezkerretaldeko enpresa ezberdinen langileentzako eraikitako etxadi hauetan sortu ziren gaur egun dirauten auzo talde asko.

Gaur egungo egoera sozioekonomikoa onena ez izateak, etorkinak, biztanleriaren adintzea, udaletxeak auzoen iritzia kontuan hartu gabe hartutako erabakiak... hainbat eragin ekarri ditu bai Llano zein Lutxanara.

Lutxana-Llano eratzen duten pertsona eta elkar-teak dira auzoa aurrera daramaten entitate sozialak.

-Jende heldua: Biztanleriaren zahartzeak eta gaur eguneko rolen aldaketek, beste garai batzuetan kontrolpean zeuden egoerak "arazo" bihurtu dituzte. Egungo gizartea adin tarte berri baten beharrak asetzera behartuta dago.

-Generazioen arteko konexio falta: Barakaldoko hiriaren plangintzak auzoak alde batera utzi ditu, aisia, kultura, eskolak, zaharren egoitzak, merkatal guneak... hirian gutxi barreiatzen den eskema bat jarraituz. Ondorioz, adin tarte ezberdinetako pertsonak hirian zehar banatzen dira auzoetako bizitza amatatuz.


-Etorkinak, etniak eta pobrezia: Bertan, diputazioko etxe tutelatuak, ospitalera tratamendua jasotzera datozen etorkinak eta krisialdi ekonomikoaren ondorioak pairatzen ari diren familiak elkarbizitzen dute.



AUZO ATMOSFERA



DATU OROKORRAK



1

AHB botikina

Jabaria: Publikoa
Azalera: 500m²
Talde kopurua: 5
Irisgarria: Ez
Taldeak:



Sporting Lutxana Futbol taldea
Partaideak > 100



Lutxanako Dultzaina tailer-eskola
Partaideak > 20



Villamor auzo elkarte
Partaideak -



Amaia Dantza Taldea
Partaideak > 60



Lutxanako emakume taldea
Partaideak > 40



2

SERRALTA ALDAPA

Jabaria: Publikoa
Azalera: 2.800m²
Talde kopurua: 1
Irisgarria: Ez
Taldeak:



La Huertaka ortu kooperatiba
Partaideak -



3

AUZO ETXEA

Jabaria: Publikoa
Azalera: 75m²
Talde kopurua: 4
Irisgarria: Ez
Taldeak:



Villamor auzo elkarte
Partaideak -



Zopinpa auzo irratia
Partaideak -



Lutxanako mendi elkarte
Partaideak > 50





Auzoen artean existitzen den hutsune luze baten bidez hauen arteko harremana erabat oztopatu edota eteten da. Horregatik, beharrezkoa ikusten da gaur egun Orconerako parkearen berrantolaketa orokorra lantzea .

Auzo taldeentzako ekipamenduez gain, bertan kirol ekipamendua gauzatzea ere proposatuko da.

Ondorioz, Orconera eremuaren berrantolaketan jorratu beharreko gai nagusiak hauek izango lirateke:

- Generazio eta kultura ezberdinen nahasketa.*
- Erabilera aniztasuna, auzorako eremua auzokideei zabaltzea.*
- Auzoen arteko konexio duina bermatzea.*
- Herri eskalako loturari erantzuna ematea.*

NON?

Lutxana-Llano auzoen artean kokatutako Orconera Iron Oreko gune zaharra lantzea erabaki da. Gaur egun Orconera edo Serraltako parkea izenez ezagutzen den arren, parkea baino, hutsune modura jabetzen da eremua.

1980.hamarkadararte Lutxanako auzoaren industria guneetako bat bertan zegoen eta Lube motor fabrika edota Bizkaiko Labe Garaiak bezalako enpresak kokatzen ziren.

Orubeak 65.000m² ditu, bertan Lutxana futbol taldearen kirol ekipamenduak, Lutxana-Llano Osasun zentroa eta Auzo elkarteek okupatutako eraikina (Labe garaien botikin zaharra) bakarrik erabiltzen dira. H.A.P.O-aren barruan Parke erabilera aurreikusia du, ekipamendurako gune bat erreserbatuz.

Nabaria da, erabilera aldetik kontuan hartzen ez den eremua dela gehien bat, auzo mailan puntu beltz modura ikusten diren gune asko bertan aurkitzen direlarik. Inguruko auzoetan gainera ekipamendu falta handia dago, hirigintza aldetik zonifikazioaren alde hartutako erabaki askok auzoen bizitza deuseztatzen daramate.

ZERGATIK?

Azken H.A.P.O.-a 1995.urtean idatzi izanak, bertako industria-
ren gainbehera eta hirigintzaren aldetik garai desarrollistarekin bat egin zuen. Hiria zonifikatzearen alde egin zen, hiriak zituen bi arazo nagusiak aukera modura erabiliz. Garraibide nagusi baterako sarbide bizkorra izateak eta dimentsio oso handiko eremu industrial hutsek hiria zerbitzu sarera bideratzea eragin zuen. Bestalde hiri sare barnean kokatutako industriaguneak garbitu eta 12.000 etxebizitza egiteko plana burutu zen.

Plan horren bidez Lutxana-Llano-Burtzeña eremuetan, industria ibai ertzeko puntu bakarrera bideratu eta bertan kokatutako eremu industrialak urban-planaren parte bihurtzen ditu. Lutxana-Llanoko eremuan orduan 4.580 etxebizitza eraikitzen bideratutako P.E.R.I-ak jorratu dira, hauen %27a 2018.urtean jada gauzaturik daude. Guztia eraikitzekotan, egun 6.732 biztanle dituen area bere biztanleria hirukoiztera eramango zuen.


Egoera kezagarria da, auzo hauek Barakaldoko "atzealde" modura trataturik egon dira beti, honen adierazle nagusia bere %24.84-eko langabezia tasa da (eustat, 2016). Auzo hauetan ekipamendu publikoak urriak dira oso. Bestalde, nabarmentzekoa da industria garaian sortutako auzo taldeek auzoaren bizitzan duten inpaktua.



ORCONERAKO parkea 65.000m²



1990tik aurrera azuoaren historiaren parte ziren elementu asko ezabatu dira. Gaur egun Orconerako pabiloiak dira aztarna bakarra.



1977an Rontegiko zubiaren obrak auzoa Barakaldo hirigunetik banatu zuen.



RIA DE BILBAO LUXANA
M.A. Landáburu Harroa, Orok 11.—Bilbao

1890-1900 mea zamatoki garrantzitsuena zen auzoa oso rurala zen arren.



1950ean Sefanitro ireki zen, honekin batera auzoaren berrantolaketa egin zen.



Auzo historiaren ezabatzea.

1914

1950

1970

1980



1950



1974



1981

1
7

Argazkiak: CIHMA, Barakaldoko argazki artxiboa.

2 Datuak: "La ría". (1995) Lutzana.Barakaldo: A.G. Rontegui, s.a.l.

BARAKALDOKO ORCONERA EREMUJAREN BERRANTOLAKETA,
kultura eta historia industrialaren aztarnak herriari plazaratuz.

KOKAPENA // Orconera eremua historian zehar

18



Landutako azaleraren barnean Lutxana-Llanoko P.E.R.I.-a eta Orconerako parkea aurkitzen ditugu.

Ardatz markatu bat aurkitzen dugu iparraldean, bertan diputazioaren kompetentzia den interfabrikas errepidea kokatu beharko zen planoan adierazia agertzen den erara. (Gaur egun proiektua alde batera utzi dute gune honetan, udaletxearen aldetik lerrokadurak mantentzea erabaki da).

Azalerari dagokionez, eremuen batura totala 68.000m²-koa da.

Lurzoruaren sailkapenari dagokionez, lurzoru hiritarra da. Orconerako pabilioen zonaldean ekipamendu erabilerara bideratutako gunea erreserbatzen delarik.

Orografia malkartsua da, Llanoko partean bereziki irisgarritasun arazo handiak aurki daitezke. Lutxanako aldeari dagokionez ordea eremua bere lehen 50m-tan laua da orokorrean.

Lurralde eredua, Sailkapena eta luraren jostioa (Barakaldoko HAPOaren modifikazio puntuala, 2005)

Egoitza intentsiborako gunea
Berdegune etan hiri parkeak
Ekipamenduak
Gune produktiboak



Baldintza orokorrak. Baldintza orokor modura hurrengo puntuak ezarri dira.

-Lutxanako aldean Ansio eta Itsasadarra konektatzen duen paseoa sortzea.

-Gaur egungo ekipamendu publikoa berpentsatu eta auzoaren neurriko ekipamendua plan-teatu.


-Irisgarritasun eta segurtasun arazoak konpondu.




Bestelako baldintzak. Batetik, eremuan egondako industria ezberdinek sor izandezaketen kutsaduraren inguruan informazioa jaso beharko da. Eremu kutsaturik egotekotan hauen azterketa egin ostean deskontaminazio plana eduki beharko du. Bestetik, lehen aipatu den modura Interfabrikas errepideari buruzko informazio ezak udaletxeak finkatutako lerrokadurarekin bateratuko da eremua.



Katalogatutako eraikinak. Lehen aipatu den moduan Orconerako pabiloiak kokatzen dira eremuan, hauei dagokionez gaur egun ez dute inolako babes edo katalogaziorik.


Lur kutsatuak (Idom, 2012)

Garbitutako eremuak
Garbiketa prozesuan dauden guneak










Egun auzoko puntu beltz nagusietakoa da. Tren geltokia eta Lutxanako auzoaren arteko konexioa, zein Orconerako parkeko lotura apurtzen du.

Alde batetik trenbidearen zubiak auzoaren alderaka sortzen duen pasabidea aurkitzen dugu. Bertara ematen duen etxebizitzak ez ditu lehiorik alde horretara 8m-ko altuerate. Horrez gain lokal hutsak eta plazara ematen duen tunela dago bertan. (1,3)

Bestetik, auzoa eta parkea lotzerko tunel bat existitzen da (2,4). 2017. urtean udaletxeak eraberritu zuen arren oraindik ere arrisku handiko gunea da. Parkera duen irteera hormarte bat da, ikusmena bertan beraz oso murriztua da.



Eraikitze data: 1890

Erabilera: Paso publikoa

Jabaria: Publikoa

Malda: %0-2

Neurri orokorrak:

(zabalera, luzeera, altuera)


-Paso: 6 m x 99 m x -

-Tunela: 2 m x 50 m x 2.1m


Babes maila: Ez dago babestua

Memoria historikoa: Bai

— ■ ■ ■ ■ ■ □ +



134
2



Orconera Iron Ore enpresak XIX.mendearen bukaeran eraikitako pabiloiak ditugu ondokoak. Enpresaren tailer modura lan egin zuten hau itxi zenerarte.


1940an AHB enpresak tailerrak erosi zituen, bai pabiloi hauek zein garai horretan eraikiak zeuden beste txiki batzuk. Eredu hau gertu zegoen Ansioko AHB lantegiari zerbitzu tekniko ematen zion.

1980.hamarkadan Barakaldoko udalak pabiloiak erosi zituen. 1995ko HAPOan eremua ekipamendu publikora bideratu zuen, gunea herriko zinturoi berdearen parte bihurtuz. 2005. urtean Pabiloietakoa bat berritu zen bertan,erabili ez den teknika museoa sortuz.

Saiakera asko egon dira auzoaren aldetik hauek ireki eta auzo ekipamendu bat izateko. Gaur egun ordea, biak itxiak daude, ez dute inonako mantenurik jasotzen.

Ekipamendu bihurtzeko eraikin hauen esku hartzea beharrezkoa da oso, estalki bat baino ez dira. Gaur egun hauetan argindarra bakarrik aurki daiteke, bestelako instalaziorik ez dago eta.


Eraikitze data: 1900 inguru
 Erabilera: Pribatua (itxia dago)
 Jabetza: Publikoa
 Eraikina: B.S
 Azalera: 1.200m² + 1.200m²
 Katalogatua/babestua: Ez/Ez
 Memoria historikoa:



Lube plaza.
Lutxanakin lotura.

Lutxana mining kalea.
Orconerako bide zaharra.

a.2 AHT BOTIKIN ZAHARRA (auzo etxea)



1950 hamarkadan AHT-ek eraiki zuen bertan ofizinen kokatzeko. Ofizinen itxi zituztenean, 1960an eraikina botikin modura erabili zen. Gero auzo osasun zentro modura erabili zen 1990 arte.

Gaur egun auzo etxearen funtzioa hartu duen eraikina guztiz saturatuta dago. Jatorriz, udaletxeak dantza taldeari lagapen modura utzi zion beheko solairuan dagoen lokala. Baina 2011. urtean auzo etxea itxi eta ekintza ezberdinak gauzatzeko instalazio premiarekin batera taldeek eraikina hartu zuten.

Eraikinaren egoera ez da optimoena, hezetasun arazoak, argin-darrar zirkuitu zaharrak, itokinak... 2017. urtean udaletxeak mantenu obra egitera behartuta egon zen dantza taldearen lokalean emandako arazo larrien ondorioz. Hala ere, sarrerako maldare moduko konponbideak izan dira. Gaur egun eraikina ez da irisgarria.

Hala ere, arazo larriena espazioarena da. Eraikina, gimnasio, dultzaina tailer, bilera gela, jangela, espozizio gela, dantza eta musika taldeen entsegu gela... bezalako aktibitateak barneratzen ditu. Argi dago hau ez dela nahikoa.

Eraikitze data: 1950

Erabilera: Publikoa / auzo taldeentzako gunea

Jabaria: Publikoa



Eraikina: B.S + 1.S / B.S

Azaletra: 500m² + 200m²


Katalogatua/babestua: Ez/Ez

Memoria historikoa:


— ■ ■ ■ □ □ □ +



OSASUN ZENTROA




Osasun zentroa 1990an eraikia da, hori dela eta auzoak izan duen hazkundera eta gero txiki geratu da. Oraindik auzoaren azken zabalguneko proiektua eraikitzen daude eta beraz, osasun zentro berri baten premia dago bertan.




Eraikitze data: 1995
 Erabilera: Publikoa
 Jataria: Publikoa
 Eraikina: -1.S + B.S
 Azalera: 1.600m²
 Katalogatua/babestua: Ez/Ez
 Memoria historikoa:

- □ □ □ □ □ +



a.4


SPORTING FCaren ZELAIA



Batetik, interfabrikas errepidearen trazadurarekin bat egiten duen gunea da hau. Foru aldunditik datorren proiektu hau bere garaian garatu zen arren auzoan planeatuta zegoen proiektua ez da aurrera atera. Hala ere, udal-txeak Serraltako futbol zelaiko grada estalia ordenazioz kanpo dagoen eraikin modura klasifikatu du. Gaur egun soluzioaren bila daude.

Bestetik, kirol ekipamendu modura gabezi handiak dituen eremua da hau. Futbol taldearen eskaerak aldagela duinak izatetik (gaur egun bi aldagela daude eta instalakuntzekin arazoak dituzte), talde zein auzorako gimnasioa eraikitzea doaz.

Azkenik, eremuaren egungo egoera dela eta hesitua dagoen arren hau irekitzeko eskaera egiten dute talde zein auzokideek.



Eraikitze data: 1970

Erabilera: Publikoa

Jabaria: Publikoa

Eraikinak: Adagelak, takillak, armailak eta biltegiak.

Azaletza: 12.000m²

Katalogatua/babestua: Ez/Ez

Memoria historikoa:


— □ □ □ □ □ +



1



2



Bere garaian hartu ziren erabaki askok ez diote eremuari mesederik egin. Industria zegoen garaiko eraikinen lerrokadura errespetatu izanak, maldari soluzioa emateko asmotan egindako betelanak... auzoak banatu ditu.

Proiektu honen bidez LOTURAK landu nahi dira. Izan ere gune honetan era ezberdinetako loturak eman daitezke. Lehenik, lotura urbanoak, auzoen arteko kasuan edo udalerriaren barnean. Herri mailako berdegune sarearen lotura lantzeko aukera ematen du eremua. Lotura hauetan bisagra modura lan egingo du orubean proposatzen den ekipamendu soziala. Interbentzioarekin gaur egun gainbeheran dauden auzoen beraktibazioa bilatzen da.

Azkenik, lotura soziala sortzen duen proiektua burutu nahi da. Langile auzo hauetan generazio eta kultura ezberdinetako jendearen beharrei erantzuten dien eremua eskeiniz.

Lotura berri hauei esker, auzoan ezkutuan geratu diren iragan industrialaren aztarnak, auzokide berriei helduarazi nahi zaie. Udaletxeak orain arte ezabatzen ibili den memoria Lutxana-Llanoren eraldaketaren zentro soziala bihurtuz.



ORCONERA EREMUAREN BERRANTOLAKETA

kultura eta historia industrialaren aztarnak herriari plazaratuz.

1 L


ORCONERA EREMUAREN BERRANTOLAKETA

- Estrategiak
- Faseak
- Eraispenak
- Ordenazio orokorra
- Programa



*Ordenazioa gauzatu ahal izateko, gaur eguneko eremuaren egoera ezagututa **parkearen** idea basikora jo da. Horrela **begetazioa eta aisia** bateratu nahi iza da, hauek baitira aurkitzen garen inguruan falta gehien duten elementuak.*

*Bestetik inguruak duen **kohesio faltari** ere konponbidea eman nahi zaio. Horretarako, aisiari bideratutako programaren atalak edota bertako begetazioa indartzerako orduan, **BANDA** batzuk sortzea erabaki da. Parkea eta hiri trama bateratu, eta bide batez txetatu beharreko programa ordenatzeko.*




1) AUZO ARDATZAK FINKATZEA

Beharrezkoa da, Lutzana-Llano duen hiri trama dela eta, bi auzoen lotura eratzen duen bisagra bihurtzea parkea.

Hiru ardatz berri sortuko dira bertan. Batetik bi auzoak konektatzen dituztrenak. Bestetik, hauei elkartut dijoan herri mailako konexioa eratzen duen ardatza.


Hauek finkatzeko eraisketa ezberdinak aurreikusi dira, hauek eraispen katalogoan daude ikusgai.



2) BEGETAZIOAREN FINKATZEA

Proiektuarekin hasteko momentuan bertan dagoen begetazioa ahal den heinean errespetatzeko konpromesua hartu da. Hori kontuan izanik, eta hiriak duen berdegune karentzia aurreikusita, hiru banda proposatu dira, hauetara egin beharreko eskuhartzea mugatuz.

Banda bakoitzak bere bereisgarria izango du, hau programarekin bat etortzen delarik. Horrela, kirol banda, produkzio banda eta banda urbanoa aurkituko ditugu bertan.



3) AKTIBAZIO PUNTUAK

Parkearen dimentsioak eta ingurua ezagututa, programa aktibazio puntuetan banatzea erabaki da.

Auzoan gaur egun duen puntu beltzaren izaera deusestatu nahi da. Horretarako egunean zehar momentu ezberdinetan erabilirik izango diren zonetan banatu da programa, etengabeko bigilantzia sustatzeko.

Programa aldetik, puntu hauek, lehen aipatutako bandetan kokatuko dira.

ORCONERAKO PARKEA

Azalera: 3.000m²

Erabilera: Parkea/plaza

Eraikina: Kioskoa eta pergola.

Egoera: Gaur egun oso gutxi erabiltzen den gunea da, auzo konexioak ez dira onak eta puntu beltzak ditu inguruan.



LUBE PLAZA

Azalera: 3.300m²

Erabilera: Plaza

Eraikina: Parterreak.

Egoera: Plazak duen diseinua, gaur egungo egoerari erantzuten dio, ordenazio berriarekin ordean atzealdea ematen dio.



AUZO ETXEA

Azalera: 4.000m² (eremua totalen)

Erabilera: auzo taldeentzako lokalak.

Eraikina: Lokalen eraikina.

Egoera: Auzoko taldeek al dutena egiten harren eraikina egoera kaskarrean dago. Urteetan zehar aldaketa ezberdinak egin zaizkio eraikinari beharrak hasetzeko.



ORCONERAKO TRENBIDE ETA PASOA

Azalera: 4.500m²

Erabilera: Bidegorria, parking-a eta beheko pasoa.

Eraikina: Zubia eta tunela.

Egoera: Auzoko puntu beltz nagusia da. Auzo taldeek urteak daramatzate hori konpontzeko lanean, gaur egun ez da ezer mahaigaineratu.



SPORTING LUTXANA FC

Azalera: 12.000m²

Erabilera: Futbol zelaiak, aldagelak eta biltegiak.

Eraikina: Aldagelak eta biltegirako bi eraikin.

Egoera: Gaur egungo ordenazio berriarekin grada nagusia ordenazioz kanpo geratu da. Taldeari begira ere, instalazioak eta hauen egoera oso eskasa dira.



OSASUN ZENTROA

Azalera: 1.600m²


Erabilera: Osasun zentroa

Eraikina: Bakarra.

Egoera: Gaur egun eraikina txiki geratzen hasia. Horregatik eta auzoa sufrizten hasi den biztanleria hazkundera ezagututa handitzeko beharra aurreikusten da.



ORCONERAKO PARKEA



LUBE PLAZA



AUZO ETXEA




ORCONERAKO TRENBIDE ZAHARRA ETA PASOA





LUTXANAKO SORTING FCren INSTALAZIOAK




OSASUN ZENTROA








1 Baratza komunitarioa




2 Skatepark




3



4 Inguruko kaleen trataera (Serralta aldapa, Lutxana)







7 Orconerako trebidearen pasoaren ezabatzea (Lutxana mining, Lutxana)



2 Futbol zelaia



Orconerako tunel zaharra eraitzi eta pasarela eraiki.
Serralta aldapa txukundu.



1.1 FASEA


2019

2023

2027

2 FASEA


Osasun zentro berria eraiki.
Bigarren futbol zelaia eraiki.



2031


2035

1.2 FASEA



Zentro zibiko berria eraiki.

Lube plaza berregokitu eta parkearekin lotura eratu.



Sporting taldearen egoitza berria eta futbol zelai nagusiae eraiki.

Ordenazioaren ekialdea gauzatu.

3 FASEA

Maila honetako interbentzio baten epeak eta faseak dira benetan gauzatzera eramanten duten faktoreak. Ordenazio orokorra bada ere, ulertzen da hasierako hipotesia aldatzeko adina denbora dagoela. Horregatik, proiektua gauzatzeko epe ezberdinak proposatzen dira. Garatu ahala auzoak ere hauek ebaluatzeko aukera izan dezan. Faktore politikoaren menpe dagoen proiektua dela ere argi dago hori dela eta faseak 4 urteko epetara mugatuko dira.

Lehen fasean (8 urte) banda urbanoa landuko zen, auzoen loturarekin batera bertan baitaude gaur egun aurkitzen diren arazo eta diskontinuitate gehienak.

Banda hau landu ondoren, egoera aztertzeko epea izango zen, biztanleriaren hazkundea, auzoaren egoera, behar berrien agertzea edo bazeuden beharren hasetzea...

Bigarren fasea (4 urte) fase honetan produkzio banda eta banda urbanoa egikaritu eta aisialdiari bideratutako banda garatzen hasiko zen. Honen bidez, auzoak eskatzen duen kirol ekipamendua gauzatuko zen.

Hirugarren fasea (4 urte) Azken fasea izango zen honakoa. Aisialdi bandari bukaera eman eta pasoa libratuko ziren.

BARAKALDOKO ORCONERA EREMUAREN BERRANTOLAKETA,
kultura eta historia industrialaren aztarnak herriari plazaratuz.

ORCONERA EREMUAREN BERRANTOLAKETA
kultura eta historia industrialaren aztarnak herriari plazaratuz. 2 M

BI AUZO BATERATZEA


- Auzo lotura
- Espazioak
- Begetazioa

- Texturak
- Labanda, Belarra, Eonymus
 - Euonymus alatus, Juniperus, Belarra
 - Aulaga merina, Belarra
 - Espirea, Belarra

- Produkzioa
- Gereziondoa
 - Aranondoa
 - Madariondoa
 - Urritza

(*) Honetaz gain, sare produktiboaren barruan sartuko dira parkean bertan aurkitzen diren ortuak.

- Babesa
- (*) Parkean ba zeudenak:
- | | |
|--------------------|--------------|
| Pagoa | Gereziondoa |
| Artea | Zedroa |
| Laurel | Palmondoa |
| Ezkie | Otsa lizarra |
| Platanondo arrunta | Zumarra |
| Lizarra | Gaztainondoa |
| Haritza | Urkia |
| Sasi Pimenteroa | |





- Espazio publiko nagusiak
- 1 Kirol ekipamenduak
- 2 kultur plaza + plaza estalia
- 3 Lutxanako plaza nagusia

ORCONERA EREMUAREN BERRANTOLAKETA
kultura eta historia industrialaren aztarnak herriari plazaratuz. 3 S

AZTARNAK BERPIZTEA

- Esku hartze estrategia
- Sistema
- Aplikazioa




[+] ESKU HARTZE ESTRATEGIA

Interbentzio objektuak kasu honetan 19. mendeko burdinezko egituradun pabeioi batzuk dira. Gaur egun aldaketa asko sufritu dituzte, askotan gainera hasierako irudia kaltetuz. Eraikin hauen erabilera berriak ezagututa hurrengo sistema proposatu da esku hartzearen momentuan.


Pabeioiek duten egitura nabarmendu nahian eta erabilera publikora izango dutela jakinik, metalezko egitura mantendu eta negutegi moduko eraikina sortzea pentsatu da. Negutegiak eraikinen berokuntza sistemaren parte izango dira, momentu oro metalezko egitura eta espazio erabiliaren artean koltxoi termiko bat osatuz.

Erabilerei bideratua ere, egurrezko bandak gehituko dira, hauek eraikinaren atal pribatuak osatuko dituztelarik. Hauek ere beharreko instalazioak eramateko erabiliko dira.




OSASUN ZENTROA

- Harreta gunea
- Kontsultak
- Itxaron gelak
- Erabilera anitzerako gela
- Langileentzako gunea
(aldagelak, bileratokiak eta officea)
- Bestelako zerbitzu gelak
(biltegiak, komunak eta instalakuntza gelak)



E: 1/400





Azaldutako sistema praktikan jarri da lehen tipologia honetan. Pabeioi honen kasuan, erabilera berria **osasun zentroarena** da eta beraz programa konplexua barnean hartu behar du.

Kasu honetan egurrezko panel autoportantezko banda horiek eraikinaren pogramaren elementu pribatuenak barnean hartuko dira.


- Egurrezko banden programa:
- Kontsultak
 - Erabilera anitza
 - Komunak
 - Aldagelak
 - Biltegiak

Bestelako erabilerak, tarteetan sortzen diren inberraderoetan kokatuko dira.


Osasun zentro baten moduko programan beharrezkoa ikusten da arkitektura lasai eta atzegin bat sortzea. Hau dela eta, itxaron gela guztiak parkearen barnean sartzea nahi izan da, inguruarekin lotura zuzena duten inberraderoetan kokatuz.


Kontsultak ere lotura hori izango dute, baina kasu honetan sortzen diren bi fatxaden arteko jokoaz baliatuko da proiektua. Horrela hain beharrezkoa den pribatutasuna lortuz.

Konbinazio posibleak



Luzerako ebaketa







D1. Itxaron gelak




D2. Sarrera




Harrera plaza




Aipatu den modura, kasu honetan espazio la-
saiak sortu nahi izan dira. Horrela, parkea erai-
kinaren barnean sartu nahi izan da ez bakarrik
azal bikoitzarekin baizik eta sarrera eratzen
duen espazioaren barnean ere plaza biguna
sortu nahi izan da.




Behe.Solairua E: 1/250



1. Solairua E: 1/250




Ebaketa E: 1/250



ZENTRO ZIBIKOA


- Erabilera anitzerako gela txikiak
- Erabilera anitzeko gela handiak
- Plaza aktibadorea
- Bestelako zerbitzu gelak
(biltegiak, komunak eta instalakuntza gelak)



E: 1/400



Portikoen egituraren erritmoa




Sistema berriz ere beste egitura baten frogatu da, kasu hone-tan programa askeagoa duen zentro zibikoarekin.


Esku hartze honekin aukera mugagabeak dituzten bandak sor-tu nahi izan dira. Horrela bandak armairu bihurtuko dira, bertan euskarri ezberdinak aurki daitezkelarik.

Bandetan instalakuntzak, almagazak eta espazioen banake-tarako panelak egongo dira. Horrela auzo talde ezberdinetara moldatzen diren espazioa izango da hau.

Ondoan dauden irudietan ikus daitezke aipatautako espazioen kualitateak.

Konbinazio posibleak







D1. Konexio moduloa




D2. Estalkia



D3. Programa banda




D4. Erabilera anitza



Esku hartze honetan erabilera publikoa duen programarentzako prestatuta dago. Momentu honetan auzo taldeek duten egoitza "ezkutuan" ditu guztiak, tamainaz ere nahikoa ez delarik.

Proposamen honekin eskaparate moduan lan egiten duen eraikina sortu nahi izan da. Horrela auzora etortzen diren biztanle berriak edota parkearen erabiltzaileei ateak zabaltzen dizkion proposamena egiten da.


Eraikina gainera eskala ezberdinetako ekintzentzako lekua izatea espero da, parkearen aktibadore nagusia bihurtuz.




Beh. Solairua E: 1/250.



Ebaketa E: 1/250




1. Solairua E: 1/250



SPORTING FC INSTALAZIOAK

- Ofizina
- Ambigu-a
- Aldagelak
- Gimnasioa
- Atsedon gunea
- Bestelako zerbitzu gelak
(biltegiak, garbiketa gela komunak eta instalakuntza gelak)




B. Solairua

-1. Solairua


Azken eraikin honekin bi auzoen trama urbanoa lotzea lortzen da, honek duen formari esker. Baita bi futbol zelaien nexoa bihurtzen da.

Zaharra eta berriaren lotura eratu nahian sistema bera erabili da kasu honetan, gaur egungo metodoak erabiliz.

Kasu honetan bandak erabili dira kanpoa eta programa pribatuenaren arteko banatzaile moduan, altuera bikoitzeko karraju bat sortuz.



Behe Solairua E: 1/250



1.Solairua E: 1/250

